

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA
Autobideak kaltetutakoen
protestaldia /08

KZGUNEA
Uztaileko
eskaintzak /09

LEINTZ GATZAGA
Aukeratu dute
jaietako kartela /10



KOPAREKIN ETXERA

GASTEIZ CUP FUTBOL LEHIAKETA IRABAZI DUTE INFANTILEK

ETXEBIZITZAK: 428 EGINGO DITUZTE/4 • BORONDATEZKO LANKIDEAK: SEBASTIAN URIBETXEBARRIA/7

GUARDIAKOFARMAZIA

UZTAILAREN 16TIK ABUZTUAREN 16RA
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

ABUZTUAREN 16TIK IRAILAREN 16RA
ITURRALDE, Mitarte 18. 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzalea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:30
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:
GOROETA
Domekan 11:30ean.

ARKARAZO
Domekan 12:30ean.

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dute mezarik esango.

OHARRAK

EPEH ASTEA

Euskal Presoak Euskal Herri-
rira Astearren barruan,
bihar, zapatua, mendi ibi-
laldia egingo dute Kurtzeba-
rrira; 09:00etan aterako dira
herriko plazatik. 14:30ean
herri bazkaria egongo da
Mitarte plazan bertsoari-
girotuta, eta arratsalde par-
tean, batukada eta kalejira
trikitilarietara. Domekan
bukatuko dute astea
Bidasoko gidariak hitzal-
diarekin; Orly tabernan
izango da, 22:00etan.

SANTIAGO JAIK GOROETAN

Bihar, zapatua, hasiko
dituzte Goroetan Santiago
jaiak. 16:30ean marrazki
lehiaketa egingo dute, eta
17:00etan mus eta briska
txapelketak. Gau parterako
auzo afaria antolatu dute,
eta horren ostean dantzal-
dia Txome soinu-
jolearekin. Datorren aste bukaeran ere,
uztailearen 24an eta 25ean,
hainbat ekitaldi egingo
dituzte.

UZTAILEKO FILM EMANALDIK

Kultura Sailak filmak
emango ditu uztailean
Herriko plazan martitzen
eta egubakoitzetan,
22:30ean. Gaur, egubakoit-
za, *Euskal Pilota, larrua
harriaren kontra* egongo da.
Hilaren 20an, martitzena,
Chihiroren bidaia euskaraz,
eta hilaren 23an, egubakoit-
za, *Te doy mis ojos*.

LORAMENDIRENAGENDA

ARGAZKI ZAHARRAK BEHAR
DITUZTE EGUTEGIA EGITEKO
Datorren urteko Debagune-
ko egutegia egiteko argazki
zaharrak behar dituzte
euskara elkarteek. Aurten
elizkizunen gaineko
argazkiak batu gura
dituzte: ezkontzak, jaunar-
tzeak... Hortaz, norbait
uzteko gertu badago
Loramendi EEko txokora
ekar ditzala. Argazkiak
itzuli egingo dizkiete jabeei.

ORAINDELA 10URTEARETXABALETAN

Ikurrinak jarri
zituzten 100.
urteurrena
ospatzeko

Bai udaletxeko balkoian, bai herri-
ko etxebizitzetako balkoi eta
leihoetan Ikurrinak jarri zituzten
1994ko uztailearen 14an Ikurrina-
ren 100. urteurrena ospatzeko. Ez
zuten beste aparteko ekitaldirik
antolatu, baina herritarrek eus-
kaldunon ikurra den Ikurrinaren
sorrera gogorarazi gura izan zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gorraize"

Gorraizia.
— Zer, lanerako esaten
jatzunian gorraizia eirre
jatzu?



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

BIBLIOPORRAK 2004
Udal Liburutegia

Helduendako liburuak

- 'Libreta horiko poemak' / P. Aristi
- 'Soinujolearen semea' / B. Atxaga
- 'Paniceiros' / X. Bello
- 'Han goitik itsasoa ikusten da' / J. Gabiria
- 'Galtzea metodo kontua da' / S. Gamboa
- 'Vacaciones fatales' / V. Giardino
- 'Pétalo carmesí, flor blanca' / M. Faber
- 'Aquí no eres un extraño' / A. Haslett
- 'Kuskue tanden' / I. Iñurrieta
- 'Eguzki beltzaren sekretua' / A. Ladron
- 'Ezinezko mailetak' / J. Olasagarre
- 'Delirio' / L. Restrepo
- 'El engaño de Selb' / B. Schlink

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

Adi!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...


Zorion agurrak,
SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun
edo gustuko duzun
neska/mutila
bere urtebetetzean
zoriondu nahi baduzu,
Asteleheneko Goienkaria-k
beste aukera bat emango
dizu: SMSa bidaltzea.



DISTRITO

UNISEX

Errekabarren 14 behean
LASTER ZUEKIN
ZURE ILE APAINDEGI BERRIA

Abuztuan zabalik

TEL.: 943 79 76 09 • ARETXABAETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Jarraiketan dozu Frantziako Tourre? Zelan dabitzela uste dozu euskaldunek?




ASIER BENGOA
Langillie

Aurten ez hainbeste, baiñe bai; igez Pirinioetara be fan nitzen baiñe aurten ezingo dot. Iban Mayo pasautekue penagarrixe izen da, aurten aurrien ibiltteko aukera haundixek euken-eta.




SANTI ARKAUX
Jubilaue

Gutxi, apur baten egoten nãz begire, baiñe ez jat larrei gustetan. Euskaldunek aurrien ibiliz gero interes gehixau izeten dot, baiñe aurten... Telebistan ikusteko gurau dot futbola.



IBON ARRIOLA
Langillie

Ez, ez jat gustetan, eta ez dot txirringularitza jarraiket. Aspertu egitten naz gainera, etapa bukaera arte ez da egoten emozioñorik-eta. Ez dakit euskaldunek zetan dabitzen be...



KAMILA JAUREGI
Langillie

Ez, beste kirol batzuk bai jarraiket. Dittut, baiñe txirringularitza ez. Badakit Euskalteli gauzak ez dutziela ondo urten, baiñe lagun-entien komentetan dauielako.



AINTZANE AIZPURUA
Langillie


Ez, ez jat gustetan. Ez hori bakarrik, pentsetan jat zoratute dauzela txirringularixek hor ibiltteko. Badakit Iban Mayo dabilela, baiñe ez dakit zelan.



EDURNE BARRUTIA
Langillie

Gutxi, astirik be ez dauket eta. Euskaldunen goraberak jarraiketie gustetan jat, eta aurten, nahiko zorte txarra euki dauela uste dot, gafetuta edo ete dabitz....

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK AHAZTUTAKO ITURRIA Herritar askok ez dute jakingo, baina argazkiko plazatxoak Maria Worth dauka izena. Bertan, iturri dotorea jarri zuten sasoi baten, baina gaur egun erdi ahaztuta daukate. Azken hilabeteotan, gainera, zikinkeriak pilatzen dira iturri barruan, eta ura ez da behar bezala ateratzen. Ea begiradaxo bat botatzen dioten bere dotoretasuna berreskura dezan. / M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Ibai osteko etxebizitzak

Deba ibaiaren ostean 428 etxebizitza egingo ditu Bruesa promotoreak. Hori onartu zuten Udalak.

ASTEAN BEHIN /05

Udal langileen lan hitzarmena

Udal langileendako Eudelek proposatutako %3,2ko igoera onartu zuten udalbatzak, osoko bilkuran.

KIROLAK /06

Gasteiz Cupeko txapeldunak

Aretxabaletako ohorezko infanti-lak Gasteiz Cup 2004 futbol lehiaketako txapeldunak dira.

ASTEKODATUA

6

LAGUN AURKEZTU DIRA UDALEKO PEOI POSTURAKO


Udalak atera duen peoi postua betetzeko izenemate epea astean bukatu da. Sei lagun aurkeztu dira, horietatik aretxabaletarrak bi. Orain hainbat azterketa gairatu beharko dituzte aurkeztutakoek.

BESTEKEESANA

“Gure ildoan izan da pluraltasuna, pluraltasuna eta pluraltasuna lantzea. Hori, berez, guztiak egin beha zuten jokoa izanik ez da hain erraza PPK gobernatzaren duen tokietan. Pluraltasun horrek ez du esan nahi PPri, agintean dagoelako Araban, kritikarik ez zaionik egin behar, eta gu izan gara kritika egitera ausartu garen bakarrak. Hori Rabanerak berak aitortu du, eta azkenean, PPK ezarri nahi duen pentsamendu bakarraren oztopo ginen eta horregatik izan da ahalegin guztia. Gure egunkarietan azaldu dira ezker abertzaleak hasi eta eskuin abertzalera ino nolabait esatearren, eta PP ez da azaldu beraiek ez zutelako nahi. Boikota egin dute bai ekonomikoa, bai politikoa, baita kazetari-lana burutzeko ere.

FELIX IRIARTE
Arrasate Irratia/04-07-13

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Egunero bat, gutxienez eta zoritxarrez

Atzo izan zen bat, gaur ere badago bat eta bihar ere egongo da besterik, zoritxarrez. Ni ikaratuta nago. Modan dagoela ematen du. Azken aldi hainbeste entzuten diren etxe barruko tratatu txarrei buruz ari naiz.

Adin, gizarte-maila, kultura eta herrialde guztietan jasaten dituzte, eta mota guztietakoak daude: fisikoak, sexualak, psikologikoak, sozialak eta ekonomikoak. Gehienetan emakumeak jasaten dituzten arren, gizonen kasuak ere badaude. Eta hau gutxi ez balitz, bikotearen seme-alabek ere jasaten dituzte, kasuen %60 baino gehiagotan.

Denbora aurrera joan ahala, erasoak handiago eta areagotu egiten dira baina salaketa egiteak oraindik atzera eragiten du, %10 eta %30 bitartean baino ez dira salatzen, nahiz eta portzentaje hori azkenaldian zorionez, gorantz joan.

Psikologoek esaten dutenez, oso zaila omen da horrelako erasotzaileak errehabilitatzea, eta horregatik erasotzaile berriak ekiditeko, umetatik hasi behar da lanean, umeei eta gaztetxoei ematen zaien heziketan dago gakoa.

Ni ez naiz aditua, baina

agian gure bizitzan feminismo apur bat jarriaz, ez lirateke hainbesteko astakeriarik gertatuko. Bai, feminismoa. Askok horrela dela uste duten arren, hitz hau ez da matxismoaren antonimoa, ez da emakumearen

nagusitasuna gizonarengan. Denok behar genuke feminista izan, gizon eta emakume guztiok. Gainera, feminismoak berdintasunaren sinonimo izaten jarraitzen duen bitartean nork ez du feminista izan nahi? Generoen arteko berdintasunean hezi behar ditugu hurrengo belaunaldiak, gure seme-alabak, bestela egunero-egunero jarraituko dugu ikaratzaren albistegiek ematen dituzten berriekin.

“Feminismoak berdintasunaren sinonimo izaten jarraitzen duen bitartean nork ez du feminista izan nahi?”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube
ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal
MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94
ISSN
1134-2609
TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Uztailleko gabak

Martitzenien hasi biher zan Kultura saille pelikularik emuten plazan, baiñe ez zan hala izen. Antza danez zain egon zan jentie baiñe pelikularik ez zan egon pantaillarik ez euelako. *Betiko kontue* entzun jakon bati baiño gehixauri.

EPEH astie egitten dabitz plataformako kideak. Gaur Never Surrender taldien kontziertue daukou, eta bixer mendi ibillaldixe, herri bazkaixe eta izugarritzko girue kalien. Hortaz, parte hartu deigun danok!

Zorionak emutie be gure dot, oinguen be kirolarixek fin ibilli die-eta. Gasteiz Cup txapelketatik kopi ekin bueltau die 14 urte dituzten hainbat mutiko: **Joseba Akizu, Igor Okina, Unai Calzon, Beñat Iturbe, Aitor Perez, Aitor Etxeberria, Gorka Bollon, Lander Andres, Asier Mtez. de Agirre, Igor Eskibel, Asier Urrea, Gartz Gorosabel eta Andoni Beitia.** Zorionak guztixei, baitte **Vicente Calzon** entrenatzailliei eta **Peio Okina** arduradunai be.

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETAKO

ETXEBIZITZAK/ Asteleheneko osoko bilkuran onartu zuen Udalak 10 aldeko botorekin eta PSE-EEren abstentzioarekin Hitzarmena sinatuko du Udalak Bruesa enpresarekin 428 etxebizitza egiteko errekararen beste aldean

MIRARI ALTUBE

Errekaren beste aldean etxebizitza egiteko Bruesa promotoreak laster, 428 hain zuzen. Hala onartu zuen udalbatzak osoko bilkuran aldeko 11 boto jasota. Hala ere, Aralar alderdia kezkatuta agertu zen etxebizitza asko izan daitezkeelako.

Arau subsidiarioak aldatu zituztenean 385 etxebizitza egitea aurreikusi zuten Deba errekararen beste aldean, 2b sektorean; orain, ostera, igo egin du Udalak kopuru hori, eta 428 izango dira eraikiko direnak.

BRUESA ENPRESAREKIN HITZARMENA

Udalak eta Bruesa enpresa sustatzaileak hitzarmena sinatuko dute datozen egunetan errekararen beste aldean etxebizitza egiteko. Hori onartu zuen udalbatzak osoko bilkuran: PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen, gainerako guztiek baiezkoa eman zioten. Hala ere, Aralarreko zinegotziek hainbat kezka agerrarazi zituzten, tartean etxe kopuruari dagokiona, eta Arritxu Oliden alkateak guztiei eman zien erantzuna. Kopuruaren gainean, Foru Aldundiak ez duela inolako trabarik jarri arau subsidiarioetan jasotakoa



Kirol etxe inguruan hasi eta Lausitta kaleraino doan tartean 428 etxebizitza eraikiko ditu Bruesa enpresak datozen urteotan.

baino etxebizitza gehiago egiteko adierazi zuen.

ERA GUZTIETAKO ETXEBIZITZAK

Datozen lau urteotan egingo dituzten 428 etxebizitza horietatik

100 babes ofizialekoak izango dira, 185 Udalak finkatutako prezioa izango dute, 45 sustatzailearen eskuetan geratuko dira lursailen jabeendako, 80k prezio librea izango dute, eta 18 familia bakarre-

koak edo txaletak izango dira. Hasiara baten %65 izango zirela babes ofizialekoak esan bazuten ere, orain portzentaje hori babes ofizialekoen eta finkatutako prezioa dutenen artean banatu dute.



Bihar, zapatua, EPEH astearen egunik nagusiena

Euskal presoaren egoera jasan-gaitza salatzeko eta aretxabaletarrak sentsibilizatu guran Aretxabaletako plataformak antolatutako astea aurrera doa. Bihar, zapatua, izango da egunik nagusiena. Hala, lehenengo mendi ibilaldia egingo dute Kurtzebarri, eta gero herri bazkaria egongo da Mitarte plazan. Domekan bukatuko dute astea hitzaldi batekin. /M.A.

Jauregi
Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETAKO

Jou Diaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAKO

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 01 28

PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETAKO
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

LAN HITZARMENA/ Hamabost bat langile egon ziren asteleheneko osoko bilkuran

Eudelek adostutako igoera onartu du Udalak langileendako

M.A.

Udal langileen lan hitzarmena eztabaidatu zuten asteleheneko osoko bilkuran. Eudelek CCOO sindikatuarekin adostutako proposamena bozkatu zuten, hau da, %3,2ko igoera, eta onartu egin zuten aldeko zortzi boto jasota. Langileak ez ziren ados agertu.

Ohiko osoko bilkura egin zuten astelehenean Aretxabaletako udalbatzak. Beste gai batzuen artean udal langileen lan hitzarmena izan zuten hizpide.

%3,2 ONARTU DU UDALAK

Ibarreko gainerako herrietan egin bezala Aretxabaletan ere osoko bilkuran erabaki zuten udalbatzak Udal langileen auzia konpontzea. Eudelek eta CCOO sindikatuek adostu duten %3,2ko igoera proposatu zuten Arritxu Oliden alkateak langileendako. Aralar alderdiko zinegotziak ez ziren alde agertu esanaz hitzarmen sektoriala berreskuratu beharra egon arren momentu honetan Udalak eta langileek negoziaketa bidez konpondu beharreko kontua dela. Bai alkateta, bai PSE-EEko zinegotzi den Mari Carmen Atxutegi hitzarmen sektorialaren alde agertu ziren. Hala, Aralarreko hiru zinegotziek aurka bozkatu zuten, Ezker Batukoa abstenitu egin zen eta gainerakoek, EAJko seiak eta PP eta PSE-EEko bakarrek aldeko botoa eman zioten.



Udal langileak egon ziren asteleheneko osoko bilkuran lan hitzarmena eskatzeko.

Aretxabaletako udaletxean lan egiten duten 15 bat langile eta Debagoieneko LABeko langileen hainbat ordezkari egon ziren asteleheneko osoko bilkuran *Inposaketarik ez, Lan hitzarmena negoziatu nahi dugu* zioten kartelak eskuan zituztela.

Bozketa egin ostean kartelak osoko bilkuren aretoko mahai gainean utzi eta alde egin zuten langile guztiek. Onartutakoa ikusita ere lan hitzarmenaren negoziaketa eskatzen jarraituko dute hurrengo hilabeteetan Udal langileek.

LABUR

Bertan behera geratu da parrokiak Bretainiara joateko antolatuta zuen bidaiak

Azken sei urteotan bidaiak antolatu dituzte abuzturako Andre Mariaren Zeruratzte parrokiako sakristau Jose Luis Arratibelek eta beste kide batzuek. Europako hainbat toki ezagutu dituzte bidaietan herritarrek; iaz, esaterako, Eskozia aldera joan ziren, eta oso giro ona izan dute beti. Aurten Bretainia aldera joan gura zuten, eta bidaiak antolatzen hasita zegoen Jose Luis Arratibel. Hala ere, 15 lagun baino ez da hurreratu parrokiara izena ematera, eta autobusa ezin beteta ibili dira. Hortaz, ez duela merezi joaterik erabaki dute antolatzaileek, eta tristura handiarekin bada ere, aurten ez dute parrokiak antolatutako bidaiarik egingo.

Goroeta auzoko Santiago jaiak bihar, zapatua, hasi eta datorren asteburuan bukatuko dituzte


Aurreratu egin dituzte Santiago jaietako ospakizunak Goroeta auzoko bizilagunek, uztailearen 24an ezkontza bat dagoelako bertako parrokiari. Horrela, bada, bihar, zapatua, hasiko dituzte jaietako ekitaldiak: 16:30ean marrazki lehiaketa egingo dute, eta 17:00etan mus eta briska txapelketak. 21:00etan auzo afaria egingo dute, eta ostean dantzaldia Txome soinu-jolearekin.

Jaiak, baina, ez dituzte bihar bukatuko; datorren zapatuan, uztailearen 24, ume jolasak eta txikiteoa izango dituzte arratsalde partean. Domekan, Santiago eguna, ostera, meza nagusia esango dute 11:30ean, eta bukatutakoan luntxa egongo da trikitilariak girotuta.

Uztailearen 27an, martitzena, pasatuko dira baserrietan sortutako plastikoa batzera


Debagoieneko Landa Garapen Elkarateak plastikoa bilketa egingo du uztailearen 27an, martitzena. Aretxabaletari dagokionez hiru lekutan jasoko dituzte plastikoa: Lausitta kalean, Izurieta auzoko bidegurutzetik 100 metrora; Bainuetxe kalean, Arkarazoko bide parean; eta Oro auzoko bidegurutzean. Hori bai, arratsalde ater behar dira. Aipatutako lekuez gain, beste leku baten edo beste egun baten ater gura baditu norbaitek dei egin dezala Landa Garapen Elkartera, 943 76 25 47.

Batuko dituzten plastikoa honakoak izango dira: siloa estaltzeko erabiltzen den plastikoa beltza, belar boletan erabiltzen den plastikoa beltza, negutegietan eta ortuan erabiltzen den plastikoa beltza eta negutegiko plastikoa zuria. Plastikozko sokak, osterak, ez dituzte batuko.



SUTAN

- TXIMINIAK
- EGUR-BARBAKOAK
- ESTALDURAK (Harri landuaren simulazioa poliuretanoan)



Mugitegi industrialdea, B bidea, 6

URRETXU

665 737 302

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76



Miren & Zuriñe

ESKAINITZA BEREZIAK

Bitxitegia • Erloju denda • Bitxien diseinua • Bitxien konponketa

Zilarrean %30 Urrean %20
Erlojuetan %20



Otalora 4 (eliza aurrekaldean) Tel.: 943 77 13 57 • ARETXABALETA

FUTBOLA

Gasteiz Cup lehiaketa irabazi du Aretxabaletako infantilen taldeak

Mexikotik etorritako Necaxa taldearen aurka jokaturako partidua izan zuten gogorrena

M.A.

Bederatzigarren Gasteiz Cup futbol txapelketa jokatu zuten joan zen astean Gasteizen. Euskal Herriko, Espainiako Estatu-ko eta nazioarteko hainbat taldek hartu zuten parte, tartean Aretxabaletako ohorezko infantilek. Euren mailako txapelkunak izan ziren, gainera.

Euskal Herriko, Espainiako Estatu-ko eta nazioarteko hainbat herrialdeetatik etorritako neska-mutikoak elkartu ziren joan zen astean Arabako hiriburuan, Gasteiz Cup 2004 futbol txapelketa jokatzeke. 10 eta 19 urte bitarteko mutilek eta 14 urtetik gorako neskek hartu zuten parte.

PARTIDU GUZTIAK IRABAZITA

Aretxabaletatik talde bakarra joan zen futbol txapelketa jokatzerara, ohorezko infantilen taldea. Vicente Calzon entrenatzailearen aginduetara jokatu zuten, eta Peio Okinak bete zituen arduradun lanak. 17 taldek hartu zuten parte euren mailan, eta lau azpitalde egin zituzten antolatzaileek. Azpitaldeko buru izan ziren aretxabaletarrak,



PEIO OKINA

Taldeko jokalariek batzuek ia ere hartu zuten parte txapelketan, eta txapelkunak izan ziren.

eta, hala, final-laurdenetara pasatu ziren. Finalaurrekoa izan zen jokaturako partidurik gogorrena, Mexikoko Necaxa taldearen aurka, hain zuzen. Bina berdindu zuten, eta penaltiak botata erabaki behar izan zuten lehia: 1-3 aretxabaletarren alde. Finalean, ostera, Alcalá de Henarestik etorritako Naya taldea izan zuten aurrez aurre, eta

3-0 irabazi zieten Vicente Calzon mutilek madrildarrei.

Aretxabaletako mutilek, gainera, omenaldi xumea egin zioten Salvatierra taldeko jokalariei izandako Asierri. Hark istripua izan zuen ia aretxabaletarren aurka jokatu ostean, eta dagoeneko ezin du futbolekin egin. Aretxabaletarrek taldeko kamiseta oparitu zioten.

FOTOKIROLA



Egitasmoen berri eman zien UDAk bazkideei

Zapatuan egin zuten Aretxabaleta Kirol Elkarteak, UDAk, urteko batzar orokorra, eta 25 batzorde elkartu ziren. Datorren denboraldiaren berri eman zuten zuzendaritza batzorde berriak, eta 67.500 euroko aurrekontua aurkeztu zuten. Elkartearen berrantolatutako gura du batzorde berriak, eta kirol guztiak batuko dituen proiektu bat egin. Bestalde, Udalarekin eta bazkideekin dituen harremanak estutzearen alde egingo du./ M.A.



Fino ile apaindegia


Gizonezkoen ile apaindegi berria

Laster zuekin

Abuztuko lehenengo hamabostaldian zabalik

Ordutegia: 9:00etatik 13:00etara

Durana 19 • Aretxabaleta • Tel.: 666264886



HURRETIK



Igotz Urzelai

Andramaixetako kartel iragarlien irabazlie

Aspaldi hasi zan jaixetarako kartelak egitten Igotz, baiñe oin arte ez dau saririk jaso. Eskoriatzako San Pedro jaixek iragarri ditzute berak egindeko kartelakin, eta Andramaixetako egitarauen be bere marrazkixe ikusiko dogu.

Ze ikasketa egin zeuen?

Diseiñu Grafikue ikasi neuen Gasteizen.

Baiñe ez zabitz horretan lanien, ez?

Ez, ibilli nitzen, baiñe oin Coprecin nabil.

Sekule aurkeztute zingozen Andramaixetako lehiaketara?

Bai... Hiru bat urtien aurkeztu dittut lanak. Inguruko jai guztietako kartel lehiaketetara eruen izen dittut.

Eta sarixek aurten aillegau jatzu...

Bai, hala da. Lehiaketa batzuetan bigarren postuen geratu naz, eta aipamen berezixek be jaso dittut, baina saririk oin arte ez. Aurten, lelengo Eskoriatzakue eta gero Aretxabaletakue.

San Fermiñetako kartel lehiaketara aurkeztu zitzen?

Bai. 6.000 kartel inguru aurkeztu gare, eta ez da samurre irabaztie.

Eta gustau jatzu irabazlien kartela?

Bai, informala da, baiñe politte. Nirie be politte zala uste dot, baiñe hotzaue, ordenadoriekin eginddekue hotzaue geraketan da.

Ze jai gureko zeuke iragartie zure kartel batekin?

San Fermiñak, duda barik. Sarixe diru kantidade haundixe ize tiez gain, mundu osuen ikusiko dauen kartela izeten da.

Egon zara aurtengo San Fermin jaixetan?

Ez, ez aurten eta ez sekule be; baiñe badauket aillegetako gogue.

Eta Andramaixetan egongo zara?

Ixe urtero geraketan naz, eta seguru asko aurten be egongo naz.

Ze gureko zeuke Andramaixetako egitarauen egotie?

Ez dakit... Ez dot askorik parte hartzen jaixetan. Hala eta be, kale bakarrien kontzentretan dittuela jaixek pentsetan jat.

Ze teknika ibilten dozu kartelak egitteko orduen?

Lelengo marraztu egitten dot, gero eskaneau eta ordenadorien tratau. Nere lan tresnie ordenadorie da.

Gustoko dozu eskuz marrazketie?

Bai, urte askuen ibilli nitzen oleuek marrazketan, baiñe oin itxitte dauket. Marrazkixek egitten dittut, baiñe gero ordenadorez tratetako, komoduau dala pentsetan jat.

Kartelaz gain beste lanik egin izen dozu?

Bai, azkenenguetakue webgune baten azalan diseiñue izen da.


M.A.

BORONDATEZKOLANKIDEAK/ Sebastian Uribetxebarria

Kolonbian dagoen Risaralda departamenduko San Clemente herrian bizi da Sebastian Uribetxebarria marianista beste hiru erlijiosorekin batera. Hirurak euskaldunak dira, bat donostiarra eta bi aretxabaletarrak: Sebastian eta Arkarazoko Migel Lete. Oporrak dituela aprobetxatuta hilabete pasatzera etorri da Urkulun jaiotakoa Aretxabaletara.

San Clementen dagoen ikastetxeke zuzendaria da Sebastian Uribetxebarria; dagoeneko 22 urte daramatza ikastetxean. Orain zortzi urte inguru San Clemente proiektua jarri zuen abian, eta oraindik han dabil lanean neska mutilekin: "Heziketa eta enplegua batzen dituen proiektua da. Nekazarien artean azterketa sakon bat egin ostean, batxilergo agroindustrialia jarri genuen abian". Nekazariak oso lursail txikiak ditzute lantzeko, eta kooperatiben beharra zutela ikusi zuen: "Hala, Mundukiderek jarri ginen harremanetan eta kooperatibari hasiera eman genion".

Momentu honetan kooperatiba bi ditzute: bata COPAC deiturikoa da, eta nekazaritza eta abeltzaintzako produktuak eta agroindustrialak kudeatzen ditu. "Astero 12 tona fruitu eta barazki saltzen ditugu kooperatibaren bitartez, eta dagoeneko 350 bat nekazarik eroaten ditzute euren produktuak komertzializatzeko", dio Sebastianek. Bigarrena esneki kooperatiba da. "Trailean jarri genuen abian euskal gobernuaren lagun-



"Kooperatiben gainean berba egitea amets hutsa da sarritan nekazariendako"

tzarekin, eta hasi besterik ez gara egin lanean. Abuztuan, gainera, hainbat tresna jasoko ditugu: esnea pasteurizatzeko makina, esaterako". Kooperatiba horiez gain loreekin eta landareekin lan egiten duen elkarteak daukate osatuta hainbat emakume, eta txerriak haziko dituen beste kooperatiba bat abian jartzekotan dira.

Risaralda 2.100 metrora dagoen departamendua da, eta bertan dago San Clemente herria. Menditsua bada ere oso klima goxoa daukate, eta gura beste euri

egiten du: "Nevado del Ruiz sumendia daukagu aurrez aurre eta noizbehinka hautsa botatzen digu, baina lurak aberatsak dira lantzeko". Zona aberatsa izan arren lan asko egin behar dela nekazariak dio Sebastianek: "Oso jende jatorra da, lasaia, lotsati samarra baina itxia ere bai. Kooperatiben gainean berba egitea amets hutsa zen eurentzat, eta oraindik ere kooperatibetara nekazari gutxi hurreratu zaigu. Izan ere, emaitzak ikusi egin behar ditzute aldaketak onartzeko. Horren ondorioz sarritan hirietara alde egiteko gogoia izaten dute, eta guk ez dugu hori gertatzerik gura". Harritzekoa bada ere, kooperatibetan emakumeek ditzute ardurarik garrantzitsuenak: "Emakumearen aldeko apustua egin dugu. Zergatik? Emakumeak lanean irabazitakoa etxera eroan ohi du, eta gizonak sarritan tabernan uzten du diruaren zati bat. Bestalde, lan egiteko orduan ere emakumea arduratsua da gizonarekin baino".

30 urte baino gehiago daramatza Sebastianek Kolonbian eta herrialdeaz erabat maiteminduta dago. Ikastetxeke zuzendaria izateaz gain, nekazariak egiten du lan eta gainera, parrokiaren laguntzen die bere kide marianistei. Lan handia du San Clementen, eta itzultzeko asmorik ez. Hortaz, hurrengo urteetan ere Kolonbia aldean ibiliko da aretxabaletarra.


M.A.



San Clementeko nekazariak masustak batzen dabilta, gero komertzializatzeko; kooperatiben bitartez egiten dute hori.

Esko Sport
beherapenak!

Zure konfidantzako denda
Intxaurtxueta 5, ESKORIATZA. 943 71 52 96



LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETAKO



Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETAKO

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko uztailearen 16a / 174. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: 55200/99

Kaltetuek oraingo ez dute onartuko autobidea egiteko lurren desjabetzea

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Protesta ekimena egin zuten astelehenean, hilak 12, autobideak kaltetutako elkarteak. Herriko plazan bildu ziren, Foru Aldundiko ordezkariak udaletxean izan zirelako. Lurren desjabetzea hasi dute ofizialki, eta beraien desadostasuna agertu zuten horrela.

Eskoriatzako kaltetuen elkarteak oraingo lurren desjabetzearen aurka daudela jakinarazi zuen asteleheneko agerraldian.

Izan ere, Foru Aldundiko ordezkariak herrira gerturatu ziren zenbait lurjabeekin elkartu eta desjabetzeak ze lurrei eragiten dien azaltzeko. Aurreko zapatuan bilera egin zuen elkarteak, eta desjabetzearen kontra azaltzea adostu zuten. "Hainbat alegazio aurkeztu ditugu proiektua hobetzeko asmoz, eta Aldundiko ordezkariak kontuan hartuko zutela esan ziguten. Baina oraingo ez da horrelakorik gertatu", adierazi du Pedro Lasagabaster elkarteak idazkariak. Bere esanetan, Aldundiaren aldetik promesak egon badaude, baina ez ditu behar bezala adierazi; hau da, Diputazioari dituen



Astelehenekoa ez da kaltetuek egin duten protesta bakarra; argazkian, auto-ilara luzeak sortarazi zituzten ekimena.

asmoak idatziz ematea eskatzen diote kaltetuek. Idatzia jaso bitartean lur desjabetzeak bertan behera uzteko eskatu diote Koldo Azkoitia Lurralde Antolaketako foru

diputatuari. Horretarako, aurrez bildu zituzten 700 sinadura helarazi zizkieten Azkoitiari.

Uztailean zehar, baina, Diputazioaren ordezkariak herrian izan

go dira beste lurjabe batzuekin biltzeko eta Lurrak Hartu Aurreko Aktak osatzeko. Jabeek beraien desadostasuna erakutsiko diete aktak ez sinatuta.

Idatzia izan arte desjabetzeak bertan behera uzteko eskatu zioten Koldo Azkoitiari

Aldundikoek euren lurretara joanda desjabetzeak argi azaltzea eskatu dute elkarteek

Foru Aldundiko ordezkariak Lurrak Hartu Aurreko Aktak osatzera etorriko dira uztailean



Erakusketa gehiago ikusgai herriko Museo Eskolan

Betiko erakusketaz gain —gure historia erakusten duena—, behin-behineko hiru erakusketa daude ikusgai Museo Eskolan udan. Emiliano Barandiaran euskaltzaleari buruzkoa da bata; garraioa eta industrializazioarekin lotutako zigiluen erakusketa bigarrena; eta txerri hilketari buruzkoa hirugarrena. Uztailean zehar egunero egongo dira ikusgai hirurak. Hala ere, abuztuan, eguazten eta eguenean itxi egingo dute Museo Eskola. /Z.V.M.

LABUR

Landa-guneetako plastiko biltzea egingo dute

Deba Garaia Mendi Nekazaritza elkarteak uztailean ere landa-guneetan plastiko biltzea kanpaina egingo du. Hilaren 27an jasoko dute materiala, eta herritarrek zerbait batzea gura badute, Zarimutzeko bidegurutzean utzi beharko dituzte euren hondakinak. Beti bezala, siloa estaltzeko, belar boletan erabiltzeko eta negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza bilduko dute; baita negutegietako plastiko zuria ere.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Arizmendi Ikastola-Jose Arana.....	943 77 20 25
Arizmendi Ikastola-Almen.....	943 77 20 25
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 54 34
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10-12 10
Larrialdia (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

ZINE EMANALDIAK

Uztailean zehar aire zabaleko zinea ari dira eskaintzen herriko plazan. Gaur, egubakoitza, *Recién casados* filma pantailaratuko dute. Astelehenean, *Atrápame si puedes* egongo da ikusgai, eta eguaztenean, berriz, *Asterix Menhirkada*. 22:15ean izango dira emanaldiak

MUSEO ESKOLA

Udako ordutegia dela eta, ezohiko ordutegia izango du museo eskolak. 09:30ean ireki eta 13:00etan itxiko dute goizetan. Arratsaldetan berriz, 16:00etatik 19:00etara irekiko dituzte atekak.

AXTROKIREN AGENDA

BAZKIDEEN URTEKO KUOTA

Axtrorik bazkideei jakinarazi gura die uztailean zehar kobratuko diela urteko kuota. Hain zuzen ere, urteko kuota erdia ordaindu beharko dute.

UZTAILEAN ZEHAR ZIRA BAT ESKURATZEKO AUKERA DUTE ERABILTZAILEEK

Uztailean ere, herriko KZGuneako ikastaroak jende guztiaren eskura

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eskoriatzako KZGuneak bi ikastaro eskainiko ditu uztailean. 08:00etatik 11:45era emango ditu eskolak Aitor Madrid irakasleak. Gainera, uztailean zira bat eskuratzeko aukera dute erabiltzaileek.

Eskoriatzako KZGunean bi ikastaro antolatu dituzte uztailearen 30era bitarteko.

OINARRIZKOA ETA NAGUSI WEB

Oinarrizko Internet deitzen da uztaileko antolatutako ikastaroetako bat. Orain arte ere eskaintza hori izan dute interesatuek aukeran, eta gaur, egubakoitza, amaitu dituzte eskolak.

Astelehenean hasiko dira berriz ikastaroa ematen, eta 20 ordu iraungo du. Sarean nabigatzen ikasiko dute bertan; ordenagailua zer den, nabigatzen eta posta elektronikoa erabiltzen ikaste-ko aukera.

Bigarren ikastaroa adinekoen zuzenduta dago. Nagusi Web izena du eta hilaren 26tik 30era bitar-


Adinekoek dituzten interesak eta ikasteko zailtasunak hartuko dituzte kontuan eskoletan

tean emango dituzte eskolak; gutxi dira hamar ordu izango dira.

Hainbat atal jorratuko dituzte ikasleek bertan. Hasteko, ordenagailu baten elementuak ezagutu eta erabiltzen ikasiko dute. Bestetik, Internet zer den ikasten hasiko dira, orrialde batzuk ezagutu eta batetik bestera nabigatzen ikasiko dute izena ematen dutenek. Azkenik, berriz, Interneten erabilera nagusiak zeintzuk diren azalduko die Aitor Madrid irakasleak.

ESKAITZA BEREZIA

Uztailean zehar eskaintza berezia dute KZGunean. Izan ere, bertako erabiltzaileek zira bat lortzeko



Uztailean ikastaroak ez eteteaz gain, eskaintza berezia dute erabiltzaileentzako.

aukera dute. Egin beharreko gauza bakarra da KZGune beste ikasle bat eraman eta eskaintzen dituzten kurtso batetan izena ematea. Bestetik, Aitorrek herritar-

rrak animatu gura ditu KZGune- ra joatera. "Jaiak.com helbidean San Pedrotako argazkiak daude, eta bertara etorrita ikusteko aukera ematen zaie herritarrei".


Aitor Lajarinen lana Artium museoan

Z.V.M.

Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon Aitorrek; orain dokortza egiten dihardu. Gasteizen jaioa, eskoriatzarra, baina duela zenbait urte kanpora bizitzera joandako artista.

Aitor Lajarin eskoriatzarraren artelana ikusgai dago Artiumen hilaren 7tik irailaren 12ra.

"Gela bateko bi horma eta zoruaren zati bat hartzen ditu nire lanak", adierazi du Aitorrek. Hainbat euskarri eta teknika erabili ditu lan horretarako. "Nire asmoa izan da pintura margolanetatik haratago eramatea, betiko euskarritik ateratzea. Eskul-



ARRASATE PRESS

Artiumen dago ikusgai Aitorren lana.

tura eta bideoarekin ere jolastu dut". Kontsumoaren gizartetik, hau da, publizitatetik hartutako

irudiekin, asmatutako espazioak sortu ditu. "Arte abstraktua eta figuratiboa nahastu ditut".

Oraindik mundu horretan hasten ari diren artista gazteei aukera eman gura izan die Artiumek. Hala, zazpi euskal gazteren lanak daude ikusgai museoan. "Artista gazteon datuak hainbat tokitan bilatu dituzte: unibertsitatean, Bilbao Arten,... Zortea izan dut", aitortu du 27 urteko eskoriatzarrak. "Erakusketa amaitzean dena ez bukatzea espero dut. Harremanak egiteko aukera izango dudala uste dut", adierazi du Aitorrek.

Beraz, artista gaztearen lana ikusteko aukera dago irailaren 12ra arte Gasteizen.

LABUR

Leintz autoeskolak lanuztearekin bat egin zuen

Lan hitzarmena sinatzeko negoziazioa etenda dago; hori martitzeneko lanuztearen arrazoiak. Urtea hasi zenetik negoziaketan ibili dira patronala eta ordezkariak. Baina martxoan bertan behera utzi zuen patronalak negoziazioa, eta beste ordezkari batzuk izendatu zituen. Autoeskoletako langileen lan orduen gaia da istilutsuena; hori hobetzea lortu gura dute lanuztearekin. Martitzenean azterketa egin behar zutenek ez dute deialdirik galduko, hurrengo asterako utzi dute.

NAIRA Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

ALZA

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

COMPOSTELA Taberna

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70

DORLETAN KANPATU ARREN, AFALTZERA BEHERA JOANGO DIRA, ERREKA ALBORA

San Fermin gogoan, entzierro batekin eman zieten hasiera udalekuei Gatzagako gaztetxoek

Z.V.M.

Bihar Dorleta aldera joan gura dute udalekuetan dabilzan lagunak eta beraien gurasoek. Izan ere, kanpaldia egiteko asmotan dabilta. Hala, udalekuetako lehenengo aste osoari probetxua aterako diote. Eguraldi ona egitea da behar duten bakarra.

Astelehen arratsaldean hama-bost gaztetxo Gatzagako kaleetan elkartu ziren. Bi aste iraungo duten udalekuei hasiera eman zieten horrela.

Gatzagako kaleak kolore zuriz eta gorritz bete ziren. Izan ere, udalekuei hasiera emateko, Iruñeko jai nagusia herrira ekarri zuten. San Fermin ospatu gura izan zuten ohiturari jarraituz. Hala ere, arratsaldeko lehenengo lana jolastea izan zen. Herriko plazan bildutakoek askotariko jokoak izan zituzten aukeran, eta primeran ibili zirela esan zuten.

San Fermini ongietorria egiteko ordua iritsi zen. Entzierroa egitea pentsatuta zuten; horreta-

rako, korrikalari on batek egin behar duen bezala, beroketa ariketak egin zituzten herriko txiki-ek. Gihar guztiak korrika egiteko prestatu eta 18:30ean, puntu-puntu, santuari kantatu zioten; behin baino gehiagotan.

Abestiaren ondoren, etxafuegoak jaurti zituzten, eta segidan, bi zezen agertu ziren. Hala, udalekuetako lagun guztiak kalean behera egin zuten korrika, herriko plazara iritsi arte.

Bertan, egunkariekin zezena zirikatzen aritu ziren. Bati baino gehiagori zirrara eragin zion zezenak gertu sentitzea, nahiz eta gezurrezkoak izan. Hala, ederto aritu ziren astelehen arratsaldean gatzagar gazteak.

**Asteburuan
kanpaldia egin gura
dute Dorletan,
eguraldi ona egiten
badu behintzat**

KANPALDIA DORLETAN

Askotariko ekintzak egin dituzte aste guztian zehar udalekuetan. Astebururako ere antolatu diete zer edo zer.

Izan ere, iragan astelehenean bilera egin zuen guraso elkarteak. Bertan, bihar kanpaldia egitea adostu zuten. "Ez badu euririk egiten, Dorletara joango gara, eta bertan kanpatuko dugu", adierazi du Eneka Zankadak, Gureleko kideak. 18:00etan joango dira kanpalekua antolatzera.


Afaltzera, berriz, beheko parkera jaitsiko dira, erreka aldamenera. "Afaltzeko barbakoa eder bat egin gurako genuke". Linternek lagunduta egin beharko dute itzulera; zenbait gaztetxoren zako abentura berri bat izango da ibilaldia.

"Domekan, lo asko edo gutxi egiten dugunaren arabera, irteera bat egin gurako genuke", azaldu dute guraso elkartetik. "Mendi ibilaldi bat izango litzateke, eta horrela emango genioke amaiera guraso eta seme-alaben arteko asteburu pasa horri", azaldu du Enekak.



Korrikalari gazteak ez ziren beldurtu zezena zirikatzerako orduan.

Z.V.M.



Anaitz Alvarezen kartelak iragarriko ditu Andramaixak

Anaitz Alvarezen kartela izango da aurtengo Andramaixak iragarriko dituena. Hamar lagunek aurkeztu dute euren lana kartel lehiaketara, eta Anaitzena aukeratu dute guztien artean. Toki Eder elkartearen zuten sari banaketa iragan zapatu goizean. Bertan, Anaitzekin batera, Aizea Uribetxeberriak eta Julen Alvarezek ere jaso zuten saria. Izan ere, bigarren eta hirugarren postuak lortu dituzte, hurrenez hurren. / Z.V.M.

LABUR

Bost musika talderen emanaldia Andramaixetan

Andramari jaietako egitaraua hasi dira antolatzen dagoeneko. Jon Sasiain kultura zinegotziaren esanetan, pertsona guztientzako egitaraua egin gura dute.

Azken egunotan kontzertuak zehazten ibili dira. Talde guztiak zehaztu gabe egon barik, bost talde ekarri gura dituzte; hala azaldu digu Sasiainek: "Rock kontzertuak izango dira, eta guztiak egun berean eskainiko dute euren emanaldia; irailaren 3an, egubakoitza, hain zuzen ere".

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!


943 79 86 21

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure
Zerbitzura



SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

merkealdia

%30

%40

%50

**SPORTLAND ARRASATE,
Garibai Etorbidea, 2-6,
www.forumsport.com**

***Iragarki honetan adierazitako deskontuek
2004ko Abuztuaren 31 arte balio dute**

**EKO
DESKONTUAK**

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida


hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

atseden
CYBERCAFE



Araba Ibilbidea 27 Aretxabaleta Tel.: 943 79 89 91



EGYNEKO MENJAK
OTARTEKOK ETX
PLATER KONBINATJAK

DURANA 32 • TEL. 943 792064
ARETXABALETA

H A I Z E A



Kafetegia
eta
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

B A S A B E
Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

Mitartegarai Baserri turismoa
eta taberna



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA, 943 79 20 67

TABERNA

ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16, ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 - ESKORIATZA

Aretz
taberna



ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA